

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa baten barruan, hainbat baliabide desberdin agertu ahal dira, baina guk bakarrik funtsezko batzuk aipatuko ditugu.

Baliabide fisikoen barruan, gure produktua ekoizteko beharrezkoak eta ezinbestekoak diren elementu materialak kontuan hartu behar ditugu, hau da, elementu fisikoak.

Lehenengoz, bizikleta ekoizteko beharrezkoak diren materialak erosi beharko ditugu: lehengaiak; hala nola, bateriak, bizikletak, tailer bat produktua muntatzeko, biltegi bat atzerritik ailegatzeko zaizkigun lehengaiak gordetzeko eta ordenagailuak eta elementu elektroniko desberdinak gure produktua internet bidez saltzeko eta ezagutzera emateko.

Baliabide intelektualen artean, gure produktua ekoizteko beharrezkoak diren jakintzak sartzen dira, hau da, produktuan lan egiten duten langileak zein nolako ikaskuntzak izan behar dituzten.


Alde batetik, muntaketan esperientzia duten langileak behar ditugu. Hauen bidez, jasotzen ditugun elementu desberdinak elkartuko ditugu, gure produktua ekoizteko. Horrez gain, sare sozialetan adituak diren langileak izan behar ditugu, gure produktuari buruzko sare soziala aurrera eramateko arrakasta handiarekin. Horretaz gain, konbentzitzeko arrakasta duten langileak ere oso garrantzitsuak dira, izan ere gure produktuak ezagutzera eramateko, lehenengo bezeroak lortu behar ditugu.

Hurrengo funtsezko baliabideak giza baliabideak dira. Hori azaltzeko, hurrengo organigrama erabiliko dugu:

Gure enpresa atal desberdinetan antolatuta dago. Lehenik, buruzagi bat dugu enpresa guztiak bezala (Eneko Murillo). Hurrengo, zuzendariorde bat edukiko dugu, buruzagiari laguntzen diona (Eneko Martin).

Bi elementu garrantzitsu hauetaz gain, beste langile mota desberdinak egongo dira: Sare sozialen lanak antolatzen dituena (Nuria Hernández), bizikleta eta pieza desberdinen muntaketa lanak antolatzen dituena (Leire Hernández), enpresaren

kontuak aurrera eramaten dituen (Markel Ortega) eta erosketen eta biltegiaren arduraduna (Jon Díaz).



Azkenik, garrantzitsuetenariko baliabide bat finantza-baliabidea da. Gure enpresa hasieratik sortzen dugunez, crowdfunding-en bidez diru extra lortzea beharrezkoa da. Horretarako hainbat gauza ezberdin eskainiko ditugu: bizikletan hainbat xehetasun desberdin ipintzea. Hala nola izena, zenbaki bat, kolorea aukeratzea...

Gure enpresari hasiera emateko, beharrezkoa izan da bankuari mailegu bat eskatzea:

Kutxabank ES | EU Online Banka Menu

Mailegu Efektiboaren hileko kuota

Mailegua behar baduzu, Kutxabank zure esku dago. **Gure kuota-simulatzailea** duzu gure Gabonetako Efektibo Maileguaren ideia bat izateko*.

Barra horizontalak mugitu edo eremuetan idatzi balioak zuzenean.

Eskatutako zenbatekoa	Epea
25.100 €	59 hilabete
1.500 € — 40.000 €	3 hilabete — 84 hilabete

Hileko kuota
500,39 €/hileko
ITN: %6,69 | UTB: %6,90
Irekiera-komisioa: %0,00.
Interesak: 4.423,20 €. Kostu osoa: 4.423,20 €. Zordundutako zenbateko osoa maileguaren simulazio honetarako: 29.523,20 €.
Azken kuota: 500,58 €.
Frantziako amortizazio-sistema.

HASIERAKO INBERTSIOA ETA FINANTZAKETA

INBERTSIOA		FINANTZAKETA	
Aktiboa		Fondo propioak eta Pasiboa	
Eraikuntzak	7000	Fondo propioak	
Altzariak	9000	Kapital soziala	20000
Ordenagailuak	9000		
Ibilgailuak	10000	Kanpoko finantzaketa	40000
Tresnak	9100	Maileguak	25100
Makinak	18300	Hornitzaileak A	1000
garraioa	700		
Salgaiak	23000	Finantzaketa denera	86100
Guztira	86100		

BIDERAGARRITASUNA > gastuen eta diru-sarreraren aurrikuspena

2020ko urtarrila

GASTUAK		DIRU-SARRERAK			
		prezioa (€/ale)	saldutako kopurua	Sarrerak	
Argindarra	200	Bizikleta	300	150	45000
Soldatak **	7700				
Gizarte segurantza %15	1155				
Alokairua	1200				
Mailegua	500,39				
Zergak 22,5%	13500				
Gastuak guztira	24255,39			Diru-sarrerak guztira	45000

URTEA		DIRU-SARRERAK			
GASTUAK		prezioa (€/ale)	saldutako kopurua	Sarrerak	
Argindarra	2400	A ptua.	300	1800	540000
Soldatak **	92400				
Gizarte segurantza %15	13860				
Interesak	162.000				
Alokairua	14400				
Gastuak guztira	285.060			Diru-sarrerak guztira	540000